

Gipuzkoa



## Botilaratutako sagardoaren salmenten inguruko aurreikuspen onak

Sagardo botilaratuaren saltzaile nagusia den Eroskik 2020ko uztako milioi bat litro sagardo natural erosiko ditu, iaz baino %15 gehiago




Udaberrian helduko da dendetara 2020ko uztako sagardoa. / LOBO ALTUNA

DV

Jueves, 4 febrero 2021, 18:07



Sagardogintzan nabarmentzen diren herrietan ere gogor ari da jotzen Covid-19a. Adibiderik berrienetakoa, eremu gorrian sartu eta txotx festarik gabe gelditu den Astigarraga. Gauzak oso-oso azkar aldatzen ez badira, **sagardotegiek denboraldi gogorrari egin beharko diote aurre** aurten ere, horrek difuen ndorio guztiekin.

Botilaratutako sagardoari dagokionez, ordea, badirudi **aurreikuspenak ez direla txarrak**. Hori dio bederen sagardo botilaratuaren saltzaile nagusia den Eroskik. Ohar baten bidez jakinarazi duenez, EAEko 2020ko uztako milioi bat litro sagardo natural erosteko asmoa du, **iaz saldutakoa baino %15 gehiago**. Iaz, hain zuzen, 2019ko uztako **930.642 litro sagardo saldu zituen**, Euskal Autonomia Erkidegoko Banaketa Handiak **saldutako sagardo botilaratuen erdia**.

Sagardoa udaberri aldera iritsiko da dendetara, bai **Euskal Sagardoa** jatorri izenarena eta bai **Gorenak** zigiluarena. Izan ere, kooperatibak EAEko hogeit hamar bat sagordetegiren produktua saltzen du, **38 bat erreferentzia** komertzializatzen dituelarik, bere marka barne.

«**Euskal Sagardoarekin dihardugu 2016an sortu zenetik**. Erakunde horrek sagardoa prestigiatzeko lan egiten du, eta elkarrekin berrikuntzak lantzen goaz arlo horretan dela formatu berriekin eta dela premia berriekin, ohiko merkatuen alternatibak bilatzeko estrategian sagardo naturala balioan jartzeko», adierazi du Eriskiren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

«Euskal Sagardoa Jia daraman sagardoa bertako sagarrekin bakarrik egiten da. Sagarraren ekoizpena profesionalizatzen ari dira pixkanaka, sagarrak ahalik eta kalitate onenekoak eta uztak orekatuak izan daitezten eta, era berean, Euskal Sagardoaren kalitatea berma dadin. Horrekin batean, Eroski bera, **banatzailea den aldetik, funtsezkoa da sagardoaren sektorearen etorkizuna bermatzeko**», azaldu du Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren gerenteak, Unai Agirrek.

Sagardotegi desberdinek marka propioarekin saltzen duten produktua banatzeaz gain, 2017az geroztik bere markarekin saltzen du Euskal Sagardoa zigiluarekin egiaztatua zegoen kalitatezko sagardo bat.

TEMAS Zabalik

## LO + LEÍDO

El Diario Vasco Gipuzkoa

Top 50

- 1 Descubre el deslumbrante piso de lujo que esconde el centro de San Sebastián
- 2 El TSJPV delibera desde hoy si levanta ya el cierre de la hostelería en Euskadi
- 3 Donostia suma su segundo día de descenso de incidencia del Covid-19
- 4 Los hosteleros achacan la expansión de la pandemia a «la relajación de las restricciones decretadas por el Gobierno ...
- 5 Astigarraga se queda sin txotx al entrar en zona roja

## Comentarios

### MÁS NOTICIAS DE DIARIO VASCO



**Pablo Motos no presenta El Hormiguero por primera vez en su historia**



**¿Cuánto tarda un municipio en salir de la zona roja?**

PATROCINADA

TE PUEDE INTERESAR



Hoja sierra calar maurer madera medio 5 piezas black&decker

MANOMANO | patrocinado



Vea cómo invertir en Amazon y otras acciones. Solo 250 € podrían gener...

La revista de la riqueza | patrocinado

Irún: Un sitio de citas para mayores de 40 años que realmente funciona


Solteros50 | patrocinado

MÁS NOTICIAS



Fallece en Azkoitia Josefa Corrales, la madre de Diego García

DIARIOVASCO



Donostia, en zona roja

DIARIOVASCO



«El dinero me ayudó a centrarme, pero no me cambió la vida»

DIARIOVASCO

recomendado por







## Fotos




Una caravana de vehículos protesta por el peaje de Deskarga



El fuerte oleaje golpea la costa



Viento, lluvia y grandes olas golpean la costa guipuzcoana



Rachas de viento de más de 100 km/h y alerta por olas

## Vídeos



# Continúa la búsqueda del pescador desaparecido en aguas de Hondarribia



© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.  
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)